# O S K O R R I



CBS 4438

Estéreo

| | |
|---|---|
| Baxca eta gitarra elektrikoa | Bixente Martínez |
| Bibolina | Zelaida Biurrun |
| Boza eta gitarra | Natxo de Felipe |
| Flauta | Polin Gurrea |
| Gitarra akustikoa | Anton Latxa |
| Grabazio-teknikoa | Anton Olariaga |
| Azala | Axularren Begia |

## EGIA DA (G. Aresti / Herricoa)

Egia da, egia da,
nik ikusi dudalako.
Egia da, egia da,
porque lo he visto yo.

Kissingerrek Vietnamen
gerra ezin irabazi,
horregatik bakearen
premioa merezi.

Irlandesak jateari
utzi zion luzaro,
kartzelatik hilobira
pagatu zuen karo.

Nazio batek lortu du
hamaika libertate,
antza ematen du baina
ez da Portugalete.

Euskaldunen festak dira
oso ederrak benetan,
baina kontuan eduki
garatela penetan.

## ANAITASUNA
(G. Aresti / Herricoa)

Hementxe gaude bildurik Euskal
Herriaren populua,
denok batera kanta dezagun
lehenen kapitulua,
fedeko artikulua.

Libertatean euskaldun denok
izango gara herri bat
eta merezi izango dugu
sozietate berri bat,
bizitza-molde garbi bat.

Herri bakar bat izango gara,
klase sozialik gabe;
aberats jauna ez da izango
gizon pobrearen jabe.
Pozik biziko garade!

Ongi dakigu hara heltzenko
dugula bide luzea,
jaso beharko dugula gure
soin-gainetan gurutzea;
hori da gure ustea!

Anai gaitezen guraso baten
seme-alabak bezala,
hala eztitu egingo dugu
zapore honen gezala;
herriak jakin dezala!

Mendi gainean ikusten dugun
beldurgarri da harroka,
anaitasunez haren kontra guk
egingo dugu borroka;
herria dago orroka!

BIZI-LEKUA: Lotería, 4 - 4.° ezk. — Tfnoa. 416 23 85
Bilbao (5)
Argedas, 12 goia — Tfnoa. 21 47 43 — Iruinea

Ⓔ Madrid 1976 Offset ALG - San Raimundo, 31 - Madrid-20

ESTE DISCO ESTEREO PUEDE SER TAMBIEN REPRODUCIDO EN UN TOCADISCOS MONC
CBS es la marca registrada de CBS, Inc. ©1976 CBS / SGAE ℗ 1976 CBS Discos CBS S.A. / Avenida Ger

ERESBIL
1007199
G13-0508

G13-0508